

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarteak

2022ko irailak 5 - 1238 zenbakia

## AURTEN BAI! ARRATEKO JAIAK

aek  
euskara praktikoa



### EUSKARA

IKASTEKO BIDELAGUN ONENA

## Eibarko AEK euskaltegia

2022/2023 EUSKARA IKASTAROAK

- MAILA GUZTIAK A1, A2, B1, B2, C1, C2
- Azterketa ofizialak prestatzeko aukera

16 urtetik gorakoentzat

**MATRIKULA ZABALUK:** irailaren 30era arte

Sostoa kalea 1, 1. solairua - 943 20 13 17 - eibar@aek.eus

DIRULAGUNTZAK/BEKAK

EIBARKO UDALA

HASE

# ARRATEKO AMAREN JAIAK 2022

irailak 7/8/11



antolatzailea:  
**EIBARKO UDALA**



laguntzaileak:  
ANDIKAO ELKARTEA, —ETA KITTO!, BETIKUAK,  
EIBARKO KLUB DEPORTIBOA, ASOLA-BERRI ELKARTEA



## HELDU!

Ekintzailletza berritzailea  
Emprendizaje innovador

EIBARKO EKINTZAILLETA-PROGRAMA



ZURE NEURRIRA PRESTATUTAKO FORMULA

TUORETZA  
+  
AHOLKULARITZA  
+  
FORMAZIOA

➔ IZENA EMAN IRAILAREN 11 BAINO LEHEN:

 [heldueibar.debegesa.eus](http://heldueibar.debegesa.eus)

 [ekintzaile@debegesa.eus](mailto:ekintzaile@debegesa.eus)



# Jarraitu gaitzazu!



GAZTEA irratiko esatari moduan ari da lanean Ainhoa Arroita Jauregi musikari eibartarra. Azken urtea oso berezia izan da 23 urteko gaztearentzat. 2021an Gaztea Cover lehiaketa irabazi zuen eta horrek ate asko zabaldu dizkiola kontatu digu.

Arrateko Tiro Pitxoiak 70 urte inguru daramatza bertan. Paraje ezin hobean dago kokatuta eta mundu osoko tiratzaileak jaso ditu urte hauetan zehar. Elkarreak gora beherak izan ditu bere ibilbidean, baina gaur egun momentu bikaina bizi du, martxa betean eta, gainera, bikain funtzionatzen duen taberna eta jatetxearekin.

@etakitto



etakitto.eus



#### ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285

#### FAXA

943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus

#### PUBLIZITATEA@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

**Erredakzioa**

### Oharra

Aste honetako zubi luzea dela-eta, hurrengo alea datorren asteko barixakuan (hilaren 16an) kaleratuko dugu.

**Erredakzioa**

## Astean esanak



Berriztagarriak ez diren baliabide energetikoak bueltarik ez duen jaitsiera prozesuan sartu dira eta euren erazketa dagoeneko ez da errentagarria. Hori gertatzen da petrolioia, ikatza eta uranioarekin, azken honekin maila handiagoan gainera. Gasari ere ez zaio askorik geratzen; erregai fosilen azkenekoetan gaude. Hidrogenoarena Repsolen zinismoaren beste muestra bat da, ez dagoelako heldutasun nahikorik oinarritzko inplementazio baterako. Egia esateko, gaur egun dugun bizitza-estandarraren antzera bizi gitezke kontsumitzen dugun energiaren hamarrarekin. Munduan garia ekoizten duten herrialde nagusienetatik bost dagoeneko debekatu egin dute esportatzea, eurentzat izango ez dutenen beldur. Erorketa globalaren atarian gaude, baina ez dugu ikusi nahi; itzalketak bata bestearen atzetik etorriko dira..

**ANTONIO TUIEL, CSIC-eko ikertzailea**

Sistema honentzat ez da jasagarria eskatzen dugun bizi maila. Ez gara jasagarriak, jasanezinak gara. Dena nahi dugu bizitza berean, eta batzuk, agian, gaur egungo bizitza honetara duintzera baino ez gara etorri (lanaren bidez). Probatu dira langileak lanera dohainik joaten diren sistematik. Proba dezakegu berriro, jar dezala enpresak langileen mantenurako departamentu bat, eros dezatela gure partez, aukera dezatela asteburuan merkataritza-gune batean ikusiko dugun filma ere. Irudimen gutxi daukagu bestela ere, erosi gabe bizitzen ez badakigu. Are gehiago, zergatik gureari bizitza deitu? Gaizkiulertuak sortzen ditu horrek. Lan-talde bat sor dezake Confebaskek horretarako ere, langileon existentziari beste izen bat jartzeko. Ea horrela zalantzak argitzen zaizkigun.

**UXUE APAOLAZA, idazlea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OJALE** → Haurzapia, ume-oihala. Normalean, pluralean erabiltzen da. "Datorkixon umiandako ojaliak apaintzen dihardu".

**OJALIETAKO UMIA** → Ume jaio berria, oraindik haurzapia erabiltzen duena. Gatzelerazko 'bebé'. "Ojalietakoko umia dirudi, ez dauka ba txori batek beste buru".

## Hildakoak

- **Miren Arrate Iraeta.** 94 urte. 2022-07-20.
- **Amelia Martinez Calzon.** 88 urte. 2022-07-20.
- **Juan Cruz Gordejuela Roncal.** 85 urte. 2022-07-22.
- **Enrique Hernandez Prados.** 61 urte. 2022-07-23.
- **Lidia Piñon Melero.** 67 urte. 2022-07-23.
- **Marisol Aldazabal Olea.** 73 urte. 2022-07-24.
- **Gerardo Gil Cid.** 66 urte. 2022-07-26.
- **Antonio Vila Cid.** 92 urte. 2022-07-28.
- **Teresa Victoria Lopez Ojer.** 106 urte. 2022-07-29.
- **Joseba Zulueta Orbea.** 62 urte. 2022-07-30.
- **Elisa Gonzalez Dinelle.** 94 urte. 2022-07-31.
- **Maritxu Arano Arretxea.** 89 urte. 2022-08-2.
- **Emilio Bastida Rementeria.** 55 urte. 2022-08-2.
- **Angel Illana Bracicorto.** 89 urte. 2022-08-4.
- **Concepcion Morales Litago.** 95 urte. 2022-08-5.
- **Agustin Cid Mangana.** 91 urte. 2022-08-6.
- **Jose Maria Casado Carmona.** 62 urte. 2022-08-9.
- **Jesus Artolazabal Arluziaga.** 84 urte. 2022-08-9.
- **Maria Esther Amesti Lamarain.** 75 urte. 2022-08-9.
- **Felix Azkune Uranga.** 82 urte. 2022-08-9.
- **Andres Muñoz Bueno.** 64 urte. 2022-08-9.
- **Jose M. Areitioaurtena Montoya.** 50 urte. 2022-08-10.
- **Juan Manuel Gago Carnicero.** 91 urte. 2022-08-11.
- **Maria Carmen Zabala Suinaga.** 91 urte. 2022-08-12.
- **Antonio Santiago Colodro.** 90 urte. 2022-08-13.
- **Fiden Reizabal Riaño.** 81 urte. 2022-08-13.
- **Manuel Martin Galende.** 77 urte. 2022-08-14.
- **Juan Santos Refoyo.** 72 urte. 2022-08-17.
- **Rufina Lopez Goñi.** 93 urte. 2022-08-19.
- **Manuel Etxeberria Etxeberria.** 70 urte. 2022-08-20.
- **Ernesto Lacasa Arsailly.** 69 urte. 2022-08-20.
- **Gregorio Heras Andres.** 67 urte. 2022-08-20.
- **Bittor Ariznabarreta Eguren.** 64 urte. 2022-08-21.
- **Nerea Fernandez Valente.** 44 urte. 2022-08-22.
- **Angeles Barrutia Manzisidor.** 69 urte. 2022-08-24.
- **J. Arnaldo Bolunburu Alberdi.** 65 urte. 2022-08-24.
- **Artemio Hortelano Carrascosa.** 87 urte. 2022-08-25.
- **Pedro Maria Perez Eguren.** 72 urte. 2022-08-26.
- **Enrique Ansola Madina.** 93 urte. 2022-08-26.
- **J. Ignacio Valenciaga Gisasola.** 81 urte. 2022-08-27.
- **Francisco Hernandez Gayo.** 88 urte. 2022-08-27.
- **Begoña Garate Basauri.** 90 urte. 2022-08-28.
- **Rafa Gonzalez Rubio.** 88 urte. 2022-08-28.
- **Roberto Zabaleta Ozamiz.** 88 urte. 2022-08-29.
- **Julio Morales Fernandez.** 98 urte. 2022-08-29.
- **Encarnacion Mora Martinez.** 75 urte. 2022-08-30.

## Farmaziak

<b>ASTELEHENA 5</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>MARTITZENA 6</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>EGUAZTENA 7</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>EGUENA 8</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>BARIXAKUA 9</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>ZAPATUA 10</b>
<b>EGUNEZ   Iraundegi</b> (Calbeton, 9)
<b>DOMEKA 11</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>ASTELEHENA 12</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>MARTITZENA 13</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>EGUAZTENA 14</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 15</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>BARIXAKUA 16</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)

**GAUEZ BETI,** 2022an,  
**Mendinueta** (Urkizu, 6)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 03 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Jaiotakoak

- **Paula Sanchez Nuñez.** 2022-07-22.
- **Adiac Palma Rodriguez.** 2022-07-25.
- **Lea Agote Korta.** 2022-07-26.
- **Danel Huerga Calles.** 2022-07-28.
- **Mikel Zuloaga Quintas.** 2022-07-29.
- **Claudia Uranga Cordoba.** 2022-08-2.
- **Sofia Mera Delgado.** 2022-08-2.
- **Martina Gregorio Osoro.** 2022-08-6.
- **Razan El Baraka.** 2022-08-7.
- **Blessing Ma Tondo Saka.** 2022-08-9.
- **Omaima Doudouth RI Khamsa.** 2022-08-11.
- **Uxue Gisasola Manzano.** 2022-08-15.
- **Layan Atmani Ziani.** 2022-08-18.
- **Eythan Mathias Gomez Pozo.** 2022-08-20.
- **Laia Legaristi Oteiza.** 2022-08-23.
- **Elene Abadin Carnero.** 2022-08-24.
- **Mohamed Abdelhadi.** 2022-08-25.
- **Laia Cid Perez de Lastra.** 2022-08-25.



## Ikasturte hasierako gastuetarako laguntzak emango ditu Udalak aurten ere

Udalak “Umeak Eskolara” eta “Dirulaguntzak Ikasleei” programen edizio berri bat onartu eta martxan jarri du. Laguntza horien bidez, ikasleen familiei 60,10 euro eman go zaizkie ikasle bakoitzeko herriko establezimenduetan egindako erosketengatik. Horrela, familiei ikasturte hasierako gastuekin laguntzeaz gain, Eibarko merkataritzak salmentak handitzea ahalbidetzen dute. Dirulaguntza horiek bermatzeko, Udalak 297.950 euroko zenbatekoa esleitu du aurtengo aurrekontuetan (203.920 euro “Umeak Eskolara” programarako eta 94.030 euro “Dirulaguntzak Ikasleei” programarako).

Ikasle bakoitzeko ezarritako zenbatekoa 60,10 eurokoa bada ere, iaz zenbait salbuespen ezarri ziren. Hala, familia jakin batzuen premia bereziei erantzunez, ikasle bakoitzeko 120,20 euroko laguntza ezarri zen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen titularrak diren (2022ko urtarrilaren 31n) edo Elikagaien Bankuaren programaren barruan dauden

familietakoa haurren kasuan. Eta aurtengo berritasun gisa, 120,20 eurorainoko laguntza jaso ahalko dute Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerak jasotzen dituzten familietako umeek.

Azken talde horretan dauden familiak salbu, oro har, eskabide bakoitzeko gehienez ere 60,10 euro eskuratuko dira, honako erosketagastu hauek ordaintzeko: arropa, oinetakoak, kirol-materiala, eskola-materiala (testu-liburuak izan ezik), betaurrekoak eta lentillak. Gainera, Eibarko dendetan salmentak sustatzeko asmoz, erosketak Eibarko dendetan egin beharko dira, aurtengo irailaren 1etik urriaren 31ra arte.

Laguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteko epea irailaren 1ean hasi eta 2022ko urriaren 31n amaituko da, eta bakarrik irailaren 1etik urriaren 31ra bitartean egindako erosketen fakturak onartuko dira. Laguntza eskaerak Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bulegoan (Isasi, 26 behea) entregatu beharko dira, astelehenetik barixakura, 08:00etatik 14:00etara.



## Txandakako TAO sistema ipini dute martxan Errebal Plazaren -1 solairuan

Abuztuan zehar lanak egin dituzte Errebal Plazia eraikinaren -1 solairuan eta, irailaren 1az geroztik, txandakako TAO sistema ezarri dute bertan. Horrela, autoa bi orduz laga ahal izango da gehienez eta, horretarako, -1 solairuan ipini dituzten makinetan hartu beharko da txartela. Neurri horrekin batera, Udalak gune zuriko aparkalekuak ahalbidetuko ditu Bidebarrieta, San Juan eta Isasi kaleetan (zenbaki bakoitien aldean).



## 1975. urtean jaiotakoek jairako izen-ematea

Azaroaren 5ean ospatuko dute 1975. urtean jaiotakoek beraien jai izena eman nahi duenak 100 euro sartu beharko ditu Kutxabankeko ES17 2095 5035 00 9121692657 kontu zenbakian, izena, bi abizen eta telefono mugikorraren zenbakia adierazita.

## AUTUAN

### AURRERA DOAZ EPAITEGI ZAHARREKO LANAK

Uztailaren erdialdean hasi ziren Bittor Sarasketa kaleko epaitegi zaharra moldatzeko lanak eta honezkeroko eraikinaren barrualdea zein teilatuaren zati handi bat eraitsi dituzte. Lanak direla eta, epaitegi perimetroa hesiekin inguratu dute eta, ondorioz, inguruko aparkaleku batzuk ere kendu dituzte. Bestalde, tar- teka aldameneko aparkalekua itxi behar izaten dute, lanean ari diren bitartean oinezko zein ibilgailuen segurtasuna bermatzeko. Epaitegi zaharrean gazteentzat 19 apartamentu egingo dituzte, alokairu erregimenean Eibarren bizi diren gazteei aldi baterako eskaintzeko.



## Ibilaldi osasuntsuak eta erretzeari lagatzeko doako saioak antolatu dituzte

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak oinezko ibilaldi osasungarrien programa jarriko du abian Debabarrenean. Herritar guzti-entzako jarduera da eta martitzeno izango da, 10:00etan elkarteak Eibarren duen egoitzatik abiatuta (Ardantza kalea, 11). Astero, bi herrietan zehar, 5 kilometro inguruko ibilbidea egingo da, eta ordu eta erdi inguruko iraupena izango du. Doako ekimena da eta izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko <https://www.contrael->

[cancer.es/es/ibilaldiak](https://www.contrael-cancer.es/es/ibilaldiak) webgunera jo daiteke.

Bestalde, Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak prebentzio arloak antolatutako erretzeari lagatzeko taldeak irailean abiatuko dira. Ekimena tabakismoan aditua den psikologo batek burutuko du, doakoa da eta online edo presentziala jasotzeko aukera dago. Izena emateko 943 45 77 22 telefonora deitu edo [gipuzkoa@contrael-cancer.es](mailto:gipuzkoa@contrael-cancer.es) helbidera idatzi daiteke (irailaren 11ra arte).

**Joseba Zulueta Orbea**

1960/03/10  
2022/07/30



**Eskerrik asko herria egiteagatik**

EIBARKO  **sortu**

**Joseba Zulueta Orbea**

1960/03/10  
2022/07/30

*"Zure irrifarreak iraungo du gure bizitzak argitzen. Beti gure bihotzean"*

- ETXEKOAK -





## Jabetze Eskolako ikastaro eta tailerretarako aurrematrikulazioa zabalik

Jabetze Eskolako udazkeneko ikastaro berrietan aurrematrikula egiteko epea zabaldu berri dute eta hauek dira udazkenean eskainiko dituzten ikastaro eta tailerrak: “Erabakiak hartzea: tapiz tailerra (ehunen bilbea)”, “Zoru pelbikoa indartzeko tailerra: gure gorpuzak ahalduntzen”, “Biorisa: barrerapia tailerra”, “Autodefentsa Feminista: oinarritzko tailerra”, “Sortu zure oihalezko konpresak”

eta “Autodefentsa Feminista: sarkontze-tailerra”.

Aurrematrikulak Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formulario bat betez egingo dira, “Ikastaroak, lehiaketak eta tailerrak” atalean. Ikastaro bakoitzak bere formulario propioa izango du. Nahiago izanez gero, formularioa Andretxean eta Pegoran ere bete daiteke. Izena emateko epea irailaren 30ean itxiko da.

## Euskadiko garraio publikoak %50eko deskontua izango du urtea amaitu arte

Euskadiko herritarrek %50eko hobaria jaso ahal izango dute EAeko garraio publikoko sistema guztietan irailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean. Espainiako Gobernuak ekainaren 25ean iragarri zuen garraio publikorako hobariak emango zituela, krisi ekonomikoari aurre egiteko. Espainiako Gobernuak laguntzen %30 finantzatuko du, eta Eusko Jaurlaritzak, %10. Gainerako %10a aldundien eta udalen esku egongo da. Mugi,

Barik eta BATen moduko txartelak dituzten erabiltzaileei aplikatuko zaie hobaria, baita abonu bidezko txartelei ere. Joan edo etorriko txartel arruntei ez zaie aplikatuko. Bestalde, enpresa publikoek kudeatutako zerbitzuek bakarrik izango dute deskontua.

Gipuzkoaren kasuan, bestalde, deskontu berri horiek Mugi sistematik ohiko deskontuei gehituko zaizkiela argitu dute garraio publikoko arduradunek.

## 65 urtekoen ospakizuna urriaren 22rako

Orain dela 65 urte jaiotakoek badute zer ospatu eta egun osoa hartuko duen egitaraua prestatu dute urriaren 22rako. 1957ko sortakoek data horretan batzeko asmoa dute eta urriaren 8ra arte eman ahal izango dute izena ospakizunean parte hartu nahi dutenek. Horretarako 90 euro ordaindu beharko dute Laboral Kutxan, ES 72 3035 0235 2023 5103 8831 kontu zenbakian, izen-abizenak emanda. Egitaraua honakoa da: 13:00ean argazkia aterra, 13:30ean piskolabisa Kontentzen, 14:45ean bazkaria Casinon, 17:00etan guatekea eta 19:30ean jai amaiera, Ametsan..



## 1962ko kintoen eguna antolatu dute urrirako

Urriaren 22an ospatuko dute 60 urte betetzen dutenek kinto eguna. Eguerdiko 13:00ean elkartuko dira Udaletxeko arkupetan, zerbait hartu eta 15:00etan Arkupetabarnara joango dira bazkaltera. Gauerako ere plana izango dute Koskorren. Izena emateko 85 euro sartu beharko dira, izen-abizenak jarritz, ondorengo kontu korrentean: ES71 2095 5035 00 9112668939.





## Udalak Haurren Kontseilua eta Nerabeena sortuko ditu, alkatetzari aholkuak emateko

Udalak Haurren Kontseilua sortzeko izen-ematea zabalduko du irailaren 12tik 30era bitartean. Adierazi dutenez, Udalerriko haurrek osatutako taldea izango da eta alkatetzaren organo aholkulari gisa aritzea da asmoa. Bere funtzioak hauek lirarteke: herriaren zatitza proposamenak eta proiektuak garatzea; eta Haurren Kontseiluari helarazten zaizkion eskakizunak entzun, landu eta eztabaidatzea. Gehienez 14 lagunek osatuko dute eta bertan parte hartzeko urtebeterako konpromisoa daukate. LHko 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendua dago, urritik maiatzera bitarteko egutegia izango du eta hilean behin bilduko da, hileko lehen eguenetan hain zuzen ere, 18:15etik 19:30era, Errebal Plazan. Izen-ematea online egin

beharko da, Udalaren webgunean eskuragarri ipiniko duten formularioa beteta.

Bestalde, helburu eta funtzio bereko beste talde aholkulari bat osatuko dute DBH-ko 1., 2. eta 3. mailetako ikasleekin: Nerabeen Kontseilua. Hauek ere urritik maiatzera bitarteko egutegia izango dute eta hilean behin bilduko dira, hileko bigarren eguenetan. Bilerak Indianokua gaztelekuan izango dira, 18:00etatik 19:30era. Nerabeen Kontseiluan parte hartu nahi duenak Udalaren webgunean eman beharko du izena, irailaren 12tik 30era.

Kasu bietan, saioak bi dinamizatzailearen laguntzarekin egingo dira eta eurak arduratuko dira deialdi, prestaketa eta erregistroa egiteaz.

## Pintaketak fatxadetatik garbitzeko kanpaina ipini du martxan Udalak

Udalak kanpaina berri bat abiatu du titulartasun pribatuko eraikitako fatxadetan pintaketak kentzeko. Aurreko urteetan ere gauzatu da programa hori eta, adierazi dutenez, "herritarrek oso harrera ona egin diote". Interesa duten auzotarren komunitateek dagokien eskaera egin beharko dute. Azaldu-takoaren arabera, lan horiek egiteko udal-inbertsioa 70.000 eurokoa izango da pertsonalaren kostuetan. Horri lanak egiteko beharrezkoa den materialaren kostua gehitu beharko zaiola argitu dute Jabeen erkidegoek eta merkataritza-lokalek modu elektronikoa egin behar dute eskaera, Udalaren web orriaren bidez; pertsona fisikoek (jabe bakarrak), berriz, elektronikoki edo aurrez aurre egin ahal izango dute, Herritarrentzako Zerbitzu Bulegoan (Pegora). Epea irailaren 30ean amaituko da.





**LORADENDA**

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

*Enkarguak etxera*



**San Andres  
Gozologia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

# Gerrako umeen oroimena dantzan jarri du Kezkak

1937an 4.000 euskal ume erbesteratu ziren Britainia Handira, gerratik ihesi. Ume haietako batzuk Galesen, Caerleonen hartu zituzten eta, hori ezagutzera emateko, uztailean 85. urteurren ekitaldiak antolatu zituen bertan Basque Children UK'37 elkarteak. Elkarte horrek gonbidatuta, Kezka dantza taldeko musikari eta dantzari talde bat herri horretara joan zen, "euskal dantzen bidez euskal kultura eta identitatea gorpuztera".



**U**ztailaren 14an ailegatu zen Caerleonerako Kezka dantza taldearen espedizioa, honako hogeitazazpi lagun hauek osatutakoa: Ekhi Zugasti, Roberto Altzerreka, Ainhoa Larrañaga, Eider Gisasola, Jone Saez, Jone Lahigalga, Jone Amuategi, Idoia Lahidalga, Izar Araolaza, Ane Muguza, Anartz Fernandez, Iñaki Barua, Josu Agirre, Josu Garate, Oier Araolaza, Unai Txurruka, Luken Aranburu, Amaia Arista, Julene Usobiaga eta Amaia Baglietto. Basque Children UK'37 elkarteak zain zituzten eta, ailegatu bezain laster, "ia kokatzeko astirik gabe", jantzi eta lehen dantza emanaldia egin zuten.

Hotelaren belardi-terrazan bazkaldu eta, bazkalostean, euskal umeek Caerleonen izan zuten historia jasotzen duen dokumentala ikusi zuten: "Ez ziren oporrak izan umeentzat. Eta herritarrekin harremanak ez ziren errazak izan beti. Euskal gaztetxo talde bat herritik aparte zegoen etxe batean egokitu zen. Beraiek bakarrik bizi ziren han. Jatekoa eramaten zieten herritar babes elkarteko kideek, baina jakiak errepikatzen zirela eta patatez gogaituta ageri ziren euskal gazteak. Okerrena ez zutela ezer egiteko. Beraz, batera eta bestera, noraezean

## Kezkako 15 dantzarik eta 5 musikarik osatutako taldeak hartu du parte The Basque Children UK'37 elkartearen 85. urteurreneko biltzarrean, Caerleonen (Gales)



ibiltzen ziren eta asperduraren asperduraz bihurrikeriak egiten hasi ziren. Gazteekin futbol talde bat antolatu eta txapelketa batean apuntatzeak bideratu zuen auzia”.

### Andre Maddalen kantatzen

Egunean bertan eskaini zuten bigarren emanaldia: “Dantzariak gorputzak berotzen ari ginela txistulariak ere hasi ziren tresnak, aho eta eskuak berotzen, eta aireratzen hasi ziren doinuak kantatzen hasi ziren emanaldiaren zain ziren biltzarkideak. Dantzariak ere batu ziren kantura. Eskaera ere izan genuen. ‘Andre Maddalen kantatuko duzue? Caerleoneko eskoletan aritu gara euskal umeen historia ezagutzera ematen eta Andre Maddalen kantatzen ikasi dute ikasleek’. Halaxe ba, Andre Maddalen kantatu eta dantzatu genuen denok elkarrekin”. Dantzari-dantzako zenbait pieza, kaskarot arrantzaleen dantza eta soka-dantza eskaini zituzten bigarren saio horretan.

Hirugarren saioa uztailearen 15ean egin zuten: “Euskal Herritik etorritako Irantzu Garamendi eta Asier Berrojalbiz musikariak gurekin batera aritu ziren eta beraiek jotako fandango, arin-arin eta kalejirak dantzatu genituen. Gure emanaldiaz gain, Irantzu eta Asierrek euskal doinu eta kanta sorta polita eskaini zuten, John L. Thomas harpa jotzaileak ere eskaini zituen pieza eder batzuk eta, azkenik, Newporteko Tredegar House Folk Dancers taldea aritu zen. Galesko dantza tradizionalen sorta ederra eskaintzen eta, bukaeran, elkarrekin dantza egiteko zenbait pieza irakatsi eta denok batera dantzatzen amaitu genuen”.



85 urte lehenago erbesteratutako haurrek eskaintzen zituzten dantzak gogora ekarri zituzten uztaileko ekitaldian. JOSU GARATE-KEZKA DANTZA TALDEA



## Julen, Atlantikaldian eta Donostia Festibalean

Julen Leturiondo musikari eibartarrak bi hitzordu garrantzitsu dauzka irailean: hilaren 17an Errenteriako Udalak antolatzen duen Atlantikaldia jaialdian egongo da eta hurrengo egunean, berriz, Donostia Festibalean. Kasu bietan, Julen musika proiektu pertsonalarekin arituko da, normalean berarekin batera ibiltzen diren musikariek lagunduta. Hainbat musika taldetan eta saltsa desberdinetan ibili ondoren, orain dela bi urte ekin zion Julenek bere proiektu pertsonalari.



## Odisea elkarteak “Ulisesen Jokoak” ekintza abiatuko du

Aurten 10 bete dituela eta, Odisea elkarteak ekintza bereziak antolatu nahi ditu. Horrela, “Ulisesen Jokoak” izeneko ekimena abiatuko du eta “Reyerta en la ciudad armera” izeneko txapelketa izango da lehen jarduera, urriaren 8an, Errebal Plazan, 08:00etatik aurrera. Warhammer 40K jokoaren txapelketa izango da eta, bertan, 30 jokalarik hartu ahal izango dute parte, hiru partida jokatzeko. Txapelketan izena emateko epea zabalik dago eta gurutzrodriguez1997@gmail.com helbidera izen-abizenak, PCB izena eta telefono zenbakia idatzita egin daiteke. 15 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko.



## Bigarrenez deitu dute Mercedes Kareaga Beka

Lehen deialdia hutsik geratu eta gero, Eibarko Udalak, EHUren laguntza akademikoarekin, Mercedes Kareaga Bekaren bigarren deialdia kaleratu du. Mercedes Kareagaren biografia izango da ikergaia, herriko emakumeen alde eta gizarte arloko asmo esanguratsuetan lan egin zuen ekintzaile eibartarraren biografia osatzeko eta bistartzeko.

Lanak urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira, Udalaren webgunearen bitartez. Aurkeztutako proiektuek 15 orrialde izan behar dituzte gehienez eta, bertan, landuko den gaia azaldu eta nola burutuko litzatekeen azaldu behar da (lanaren ikerketa-esparrua; aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera; ikertzailearen edo ikerketa-taldearen aurreko esperientzia; helburuak; materialak, baliabideak eta lan-metodologia; lana garatzeko kronograma; aurreikusitako emaitzak eta horien interesa, eta bestelako finantzabideak, horrelakorik balego).

Hogei hilabeteko epea egongo da lana amaitzeko eta denbora tarte horretan lau txosten aurkeztu beharko dira, UPV/EHUK eta Eibarko Udalak osatutako bazorde mistoak lanaren jarraipena egiteko.

## Irigoienek argazkiak Santurtzin



Irailaren 1ean zabaldu zuten Jose Luis Irigoien argazkilariaren “Hondartzan” erakusketa, Santurtzin. Klub Deportiboko argazkilariaren irudiek hondartzetan egiten duguna, keinuak, egoerak, harremanak... islatzen dute, “baina, hori bai, konplexurik gabe”. Bihotz Gaztea argazki taldeak The Wagon lokalarekin elkarlanean antolatutako erakusketa urriaren 31ra arte egongo da ikusgai, aipatutako lokal horretan (Vapor Habana, 4).



## Euskarazko irakurketa talderako izen-ematea hilaren 23an itxiko da

Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa kluberako izen-ematea zabalik dago. Jarduera honetan hilean behin idazleak bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko aukera eskainiko die, aurrez aurreko solasaldien bitartez. Udal liburutegiak antolatuta, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean egingo dira saioak, Portalean, 19:00etatik 20:00etara. Ikasturte honetan Ainhoa Aldazabal Gallastegik dinamizatuko ditu saioak. Jarduera guztiz doakoa da eta izena emateko epea irailaren 23an itxiko da. Derrihorrezkoa da online egitea, Udalaren webgunean aurkituko duzuen formularioa beteta.



## Zirkuan girotutako kale ikuskizuna irailaren 10ean

Gorka Ganso eta Cecilia Paganiniren eskutik “Panoli kabareta” kale antzerkia hartuko du Karmengo parkeak irailaren 10ean, 20:30ean. Keinu bidezko clown ikuskizuna da, publiko guztiarentzat, eta magia, vaudevilleak eta akrobaziak tartekatuko dituzte 45 minutuko iraupena izango duen saioan.



## Zurumurruen kontrako irakurketa laborategia

Zurumurruen aurkako I. Irakurketa laborategia abiatuko du liburutegiak, Monica Leiva kazetariaren eskutik. Azaldu dutenez, “hausnartzeko espazioa izango da, lan pertsonala eta taldekoa egiteko gunea, belaunaldiz belaunaldi oinordetzan hartzen ditugun eta pertsonen arteko bizikidetzaz zailtzen duten estereotipoak, aurreiritziak eta zurumurrak aztertzeko”. Portalean garatuko da ekimena urriaren 17an, azaroaren 14an eta abenduaren 12an (gaztelaraz). Izen-ematea online egin behar da, Udalaren webgunean (epea hilaren 23an itxiko da).

## Ingelesa eta frantsesa praktikatzeko saioak liburutegian

Hizkuntzak praktikatzeko aldizkako bilerak eskainiko ditu liburutegiak ikasturte honetan ere, “Meetings at the Library” eta “Réunions dans la bibliothèque” egitasmoen bitartez. 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena eta saioak urrian hasiko dira (Portalean, asteko eguna zehazteke). Izen-ematea irailaren 23ra arte egin daiteke, Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioa beteta.

## Haurren irakurketa klubak



Kurtso berriarekin batera hasiko dira haur eta gazteen irakurketa klubak liburutegian. “Azalerako ipuinak” izenekoan urte bateko umeek eta HH-ko 2 eta 3 urteko gelakoek har dezakete parte, aita edo amarekin. Eta “Paperezko hegoak” izenekoan LHko 3. mailatik DBHko 1. mailara bitarteko ikasleek. Izen-ematea Udalaren webgunean egin behar da (23ra arte).



Andero-andereak. Silbia Hernandez



Aurtengoa. 17. edizioa izango da eta, oraingoan ere, Interesatuek fabrikazio mekanikoko ikasketak egin ahal izango dituzte.

## Debarrena Integra Bat Eginez Programan izen-emate epea zabaldu da

2022-2023 ikasturterako Debarrena Integra programaren 17. edizioa antolatu du Armeria Eskola Elkarteak. Izena emateko epea irailaren 13ra arte zabalik egongo da.

Armeria Eskola Elkarteak kudeatu eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako programaren helburua gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden langabeak gizarteratzea eta laneratzea da.

Ekimenak bi fase ditu. Lehenengoan, ohikoa den bezala, matematikak eta gazteleralanduko dira. Atal hori 180 ordu ingurukoa izango da. Fase hori irailaren 19an hasi eta urtarrilaren 26ean amaituko da, astelehenetik barixakura, 11:00etatik 14:00ak arte. Aurreko urteko arrakasta ikusita, aurtengoa ere euskaraz ulertzeko 60 orduko saioak

eskainiko dira, Eibarko Udalaren lankidetzari esker. Uler saio hauen helburua euskarazko ahozko ulermenean oinarritako maila eskuratzea da eta modu horretan gizarteratzea erraztea.

### Gizarte-bazterketa jasatzeko arriskuan dauden langabeak gizarteratzea eta laneratzea da helburua

Bigarren fasean, FMEE0108 Fabrikazio Mekanikoko Eragiketa Osagarriak (400 ordu + 40 ordu PPNL = 440 ordu) profesionaltasun ziurtagiria emango da Armeria Eskolan, astelehenetik barixakura (14:30etik 19:30era). Lan-Administrazioak akreditatutako lehen mailako Profesionaltasun Ziurtagiri bat da eta gainditzen dutenek praktiketako modulua egin ahal izango dute. Azkenik, curriculumak eta lan-elkarrizketak landuko dira DAITEKE Gizarte Aholkularitza-eren eskutik.

### Debarrena eskualde osoko langabeentzako

Interesa duten guztiek LANBIDEn izena emanda egon beharko dute enplegu-eraketaz gisa, 16 urte beteta izan beharko dituzte eta Debarrena eskualdean bizi beharko dute.

Izen ematea 943203244 / 615 775 556 telefono zenbakietara deituz, ikastaroak armeriaeskola.com estekan edo Armeria Eskolako 104 Bulegora bertaratu egin daitezke.

AINHOA ARROITAJAUREGI • Musikaria eta esataria GAZTEA irratian

# “Estilo desberdinak probatzea gustatzen zait”

GAZTEA irratico esatari moduan ari da lanean Ainhoa Arroitajauregi musikari eibartarra. Marketin eta publizitate ikasketak ditu, eta txikitatik egon da musika munduan murgilduta. Azken urtea oso berezia izan da 23 urteko gaztearentzat. 2021an Gaztea Cover lehiaketa irabazi zuen eta horrek ate asko zabaltu dizkio. Gauza berriak probatzea gustatzen zaio eta musika estilo desberdinak esploratzen ari da.

Testua  
ANA AIZPURUA  
Bideoa  
YANIRE SAGREDO

**B**ere gitarrarekin abesten oso eroso sentitzen da. Hala ere, gauza berriak probatzea gustatzen zaio eta ez dio ezkerri uko egiten. Bakarka aritzeaz gain, Debajo del Paraguas taldeko abeslaria ere bada, eta kolaborazioak egiten ditu artista desberdinekin. Azkena, Esco Eibarko raperoarekin grabatu duen Deabruak abestia.

## Musikari eta abeslari, eta orain GAZTEA irratico ahotsa. Noiztik Miramongo estudioetan lanean?

2021ean Gaztea Cover lehiaketara aurkeztu nintzen eta irabazi egin nuen, Oli-

via Rodrigoren “Driver License” abestia-rekin. Denbora gutxira kolaboratzaile izateko deitu zaidaten eta, jakina, baietz esan nien, nola ez! Eguaztenero hasi nintzen bertara joaten. Hitz egitea asko gustatzen zait, ez daukat horretarako arazorik. Lanpostu bat hutsik geratu zenean egun osoko jarduna egiteko aukera eman zidaten. Eta orain hemen nago, botatzen nauten arte, jajaja. Udan asteburuetan egon naiz, eta irailetik aurrera astelehenetik barixakura egongo naiz. Ainhoa Vitoriarekin egiten dut “Ainhoak” saioa. Kasualitate hutsa izan da, lehen Ainhoa Vitoriak Ainhoa Urretabizkaiarekin egiten zuen “Ainhoak” formatua eta orain berriro bueltatu da, baina oraingoan nirekin.

## Nolakoa da irrati mundua? Espero zenuena aurkitu duzu?

Inoiz bizitzea espero ez nuen esperientzia da, baina uste onua baino gusturago nago. Nahiko erraza egiten zait, dinamikoa, eta oso giro ona dago. Beraz, oso pozik! Musikari baten ikuspegitik ere oso aberasgarria da. Jende asko ezagutzeaz aparte, egun osoa musika entzuten nago eta hori gozamina da niretzako: bulegora ailegatu eta musika entzun, musika analizatu, musika prestatu, musika entzulei eskaini... Azkenean denbora guztian zaude musika-erakusleiko bat eskaintzen eta hori oso polita da.



Bideoa  
ikus  
eta  
entzun nahi?







Musika beti izan da bere pasioa, eta horrela bizi du, pasioz, irratiko esperientzia ere. ANAIAZPURUA

**"Uda honetan arnas apurtxo bat hartu dugu Debajo del Paraguas taldean, eta orain proiektu berri bati ekingo diogu"**

### **Zure ideiak eta ikuspegia kontuan hartzen dira?**

Eguneroko zerrenda bat dago, errespetatu egin behar dena, baina guk deskubritzen ditugun musikari eta estilo berriak eskaintzeko askatasuna ematen digute. Horrez gain, lehenengo egunean hitzegiten hasi nintzenean oso txikia sentitzen nintzen, baina apurka-apurka zure nortasun propioa garatzen zoaz; pertsonaia bat bazina bezala da. Azken batean, irratian ez duzu kalean bezala hitz egiten.

### **Abeslari moduan jendaurrean egin dituzun aktuazioak, Madrilen bizitzen eman dituzun urteak... Guztiak dira lagungarri nortasun hori garatzen joateko?**

Amarekin beti gogoratzen dut nire lehen kontzertua. Eibarko elizan izan zen, Koro Gaztearekin. Kriston "galloa" atara zitzaidan eta ordubete egon nintzen

### **"Musikari baten ikuspegitik oso aberasgarria da irratian lan egitea"**

negarrez. "Ez dut berriro abestuko, ez dut hau egiteko balio", esan nion Elena Koroko zuzendariari. Oraindik ere beste mila miloi aldiz urratuko zait ahotsa, baina azkenean hori hartu, eraldatu eta zure nortasuna garatzea besterik ez da gelditzen. Madrilén bizitzeak ere asko lagundu dit garapen horretan. Eibarre oso gustura bueltatu nintzen. baina beti esaten dut haizeak mugitzen duen hostoa naizela, hau da, bihar bizitzak beste leku batera eranaten banau arazo barik joango naiz.

### **Eibarrera bueltatu zinenean Debajo del Paraguas taldearekin hasi zinen...**



Deabruak kanta grabatu du Jon Escolar "Esco" txikitako lagunarekin. Plataforma guztietan dago entzungai.



Irailaren 10ean kontzertua emango du Ainhoa Mahasti Artean Jaialdiaren baitan.

Bai eta asko ikasi dut eurekin. Izan ere, taldeak bost urte zeramatzan martxan ni iritsi nintzenean eta nire lehenengo kontzertua, Eibarko Koroaz aparte, eurekin izan zen. Edozer gauzaren gainetik oso lagun onak gara. Uda honetan atsedeen bat hartu dugu, hain zuzen ere, ez dugulako nahi adiskidetasun-harreman hori erre. Arnas apurtxo bat hartu dugu eta berriro bueltatuko gara proiektu berri batekin.

**Bakarka eta taldean aritzeaz gain, beste artistekin kolaborazioak egin dituzu. Horren adibidea da Esco rapero eibartarrarekin grabatu duzun Deabruak abestia.**

Jon txikitako laguna da eta asko maite dut. Bera rap munduan dabil eta kantu bat egitea proposatu zidan orain dela bi urte. Ni, berritsua izan arren, oso lotsatia naiz, baina azkenean zeozer egin behar genuela erabaki genuen: berak rapa eta nik melodia bat egin nuen. Oso ondo gelditu da eta jendea asko gustatu zaio. Ez zait estilo bakarra egitea gustatzen.

## "Hainbeste estilo egonda, zergatik geratu bakarrarekin?"

Hainbeste estilo egonda, zergatik geratu bakarrarekin? Zelanda taldearekin ere oso abesti desberdina egin nuen. Une honetan estilo desberdinen artean esploratzen nabil. Ezingo nuke estilo jakin bat aukeratu. Esate baterako, irailaren 10ean Larrabetzun kontzertua emanngo dut Mahasti Artean jaialdian, eta Izaroren eta Bad Bunnyren bertsioak egingo ditut, pentsa!

### Noizko zure abesti propioak?

Taldearekin euskarazko bat egin nuen, eta orain ere horretan nabil; baina, esan dudan moduan, oso lotsatia naiz. Hala ere, apurka-apurka eta bizitzen ari naizen esperientziei esker, irratia esate baterako, segurtasun handiagoa hartzen ari naiz. Seguru aurten musika berria aterako dudala!

# KITTONBOLIA



## Aurten bai! Badator Kit**ton**bolia!

2019az geroztik Arrate eguna ganoraz ospatzeko aukerarik ez dugu izan, eta zeinen gogorra izan den! Eibartarrantzat oso bereziak dira Arrateak, uda osteko bilgunea izateaz gain, ikasturte berria beste aldarate batekin hasteko indarra hartzen baitugu.

...eta kitto! Euskara Elkartearantz ikasturtearen hasiera ere markatzen dute Arratiek. Bertso-afaria izango da irailaren 7an Tiro Pitxoian izango dugun lehen ekitaldia eta Arrate egunean Kittonbolia!

Eliza parean egingo duzue topo Kittonboliakin eta, 2003az geroztik izan den bezala, txartelak euro batean erosi eta sariak etxera eramateko aukera izango duzue: gazta, txuleta, afariak, otarrak, bazkariak, motxilak, urdaiazpikoa, Tablet-a, argazki-kamera, ardo-botilak, telebista, Coliseorako sarrerak, kamisetak, diskoak, opari-txartelak... eta beste sari mordo bat duzue zuen zain.

KPIak gora egiten ez duen bitartean, ...eta kitto!-k prezio berean salduko ditu txartelak, nork emango dizue gehiago horren gutxiren truke?

Esan bezala, ehundaka sari ditugu aurten ere banatzeko prest. Urtero moduan Eibarko elkarte, denda eta enpresen laguntasunari esker tonbola opariz jositako ikusiko duzue. Eskerrak eman nahi dizkizuegu opariak eman dituzuen babesle guztioi, baina alde aurretik eskerrak eman nahi dizkizuegu, egunean bertan boletoak erostera hurbilduko zareten guztioi ere.

Dakizueenez, tonbolatik lortutako dirua Eibarren euskararen alde lan egiteko erabiliko du Euskara Elkartek. Urteko programa aurrera eramateko ezinbestekoa dugu, ezingo genuke, bestela, Berbetan Mintzapraktika programa, Txikitto!, Euskeraz Primeran! ostalaritza eta merkataritza euskararen erabilera sustatzeko programa, Transmisio eta sozializazio Mintegia, bertso-paper lehiaketa, literatura lehiaketak, eskuartean duzun astekaria, etakitto.eus ataria eta sare sozialak... eta beste hainbat proiektu garatu.

Egunean 10:00etatik aurrera, beste urtebetez Arraten ikusiko dugu elkar.



**ANTOLATZAILEA**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**LAGUNTZAILEAK**

- QWAPOS TXAKUR-ILEAPAINDEGIA
- AGUIÑASPI TABERNA
- AKARA TABERNA
- AMAÑA GASOLINDEGIA
- AMAÑAKO JAIK
- ARATATTO
- ARREGI DOMINGUEZ ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR KIROLDENDA
- ASPE PILOTA
- ASTELENA GASTROBAR
- ATHLETIC CLUB
- AZITAIN GASOLINDEGIA
- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- AZPIRI SANEAMENDUAK
- BAGLIETTO DEKORAZIOA
- BAISI TABERNA
- BENICOBA ELEKTRODOMESTI-KOAK
- BIRJIÑAPE BERRIA TABERNA
- BURBUJAS Y MAS LURRINDENDA
- CAPI ESTETIKA

- CHIDO JATETXEA
- DANDARA JANTZIDENDA
- DIRDAI BITXITEGIA
- DITARE MERTZERIA
- EGUREN ELEKTRODOMESTI-KOAK
- EIBAR ESKUBALOAIA
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBAR SASOIAN ONGIZATE ZENTROA
- EIBARBUS AUTOBUSAK
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA KULTURA



- EL CANTON DE LA AVENIDA



- EL VESTIDOR JANTZIDENDA

- EMANKOR TALDEA ERAIKUNTZAK



- EROSKI EIBAR HIPERMERKATUA
- FARMALUR/ FARMACOOK
- GENOVEVA ARRAINDEGIA
- GERRITEK INFORMATIKA
- GRATZINA JANTZIDENDA
- GUBY JANTZIDENDA
- GURIDI TABERNA
- HELMET HOUSE
- IBARKURUTZE FRUTADENDA
- IDOIA BERGARETXE ESTETIKA
- IKUSI EIBAR JANTZIDENDA
- INDUSTRIAS M A I L
- IPUR SAGARDOTEGIA
- IREI ESTETIKA
- IRRITSA JANTZIDENDA



- ITXESI BELARDENDA
- IXUA HOTELA
- IZADI LOREDENDA
- IZANE DEKORAZIOA
- IZASKUN HARATEGIA

- JAUREGI ETXERAKO TRESNERIA
- JAZ ZUBIAURRE
- JERONIMO JOSTAILUDENDA



- JORGE VEGA S.L. IGELTSERITZA
- K2 BITXIAK ETA ESKULANAK
- KANTOI GASOLINDEGIA
- KENKO OSASUN ETA ONGIZATEA



- KERALA ESTETIKA
- KHOL ILEAPAINDEGIA
- KLAUS DEKORAZIOA
- KOKEIN TALDEA
- KONTENT TABERNA
- KOPINA JANTZIDENDA
- KRESALA ARRAINDEGIA
- KULTU TABERNA
- LABORAL KUTXA



- LAKETT ESTETIKA
- LEDER POLTZO ETA OSAGARRIAK

- LOLA 'S JANTZIDENDA
- MARSÍ LOREDENDA
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA JANTZIDENDA
- NEURE DEKORAZIOA
- NO COMMENT JANTZIDENDA
- OBERENA HARATEGIA
- OROZ EXCLUSIVAS
- OTEGI HARATEGIA
- PUBLIRESA PUBLIZITATEA



- PIRRITX ETA PORROTX



- S.D. EIBAR
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SOSOLA BASERRIA
- SU TA GAR TALDEA
- SUBEROA TABERNA
- TIRO PITXON JATETXEA
- TWINS JANTZIDENDA
- TXUTXUFLETAS GOZOKIAK
- UMEA JANTZIDENDA
- URDANIBIA JANTZIDENDA
- URKOTRONIK
- XARE JANTZIDENDA
- YRAOLAGOITIA LIBURUDENDA
- ZORIONAK LUDOTEKA
- ZUBI GAIN TABERNA

**Opari mordo  
prest zeuen  
artean  
banatzeko.  
Zuen zain  
gaude!!!**

**Boletoaren  
prezioa:  
1 €**

**ESKERRIK ASKO  
LAGUNTZAILE  
ETA PARTE-  
HARTZAILE  
GUZTIEI!!!**

# JAI EGITARAUA JAI EGITARAUA JAI EGITARAUA

## EGUAZTENA 7

- **18:00 Meza.** Ondoren Salbea, txupinazoa eta kanpai-errepika.
- **19:00 Herri-kirolak.**
- **21:00 Bertso-afaria.** Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Sustrai Colina. Gai-jartzailea: Jon Mikel Mujika. Tiro Pitxon jatetxean. Antolatzailea: ...eta kitto!
- **23:30 Kontzertuak.** Txosnen eskutik.



## EGUENA 8

- **10:00 Arraterako igoera.** Azitaingo gasolindegitik, Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik. Salda, txorizoa eta ardoa banatuko dituzte Zesteroko iturrian. Jai Batzordeak antolatuta.
- **10:00 Kittonbola.**
- **10:30 Kalejira.** Eibarko Usartza Txistulari Taldea.
- **11:00 Meza nagusia.** Kezka Dantza Taldeak eta Usartza Udal Txistulari Taldeak Arrateko Amaren ezpata-dantza egingo dute. Ondoren, Arrateko Amaren **prozesioa**, Usartza, Kezka, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak, bertsolariek eta agintariek lagunduta.
- **12:30 Arrateko Amaren Dantzak.** Kezka Dantza Taldea eta Usartza Txistulari Taldea.
- **13:30 Trikitilariak eta bertsolariak.** Jainaga eta Narbaiza / Mikel Mendizabal eta German Meabebasterretxea.
- **17:00 Bertsolarien saioa.**
- **17:00 Arrateko Amaren Hiru-Txirlo Saria.** Asola Berri Elkartearen eskutik.
- **17:30 Bete zaitetz... baina emozioz!** Alkoholaren inguruko kanpaina informatzailea eta hezitzailea.
- **17:30 Dantza Solte Txapelketa.** 10 bikote onartuko dira, alde zaurretik gonbidatuak (bost 15 urtetik gorakoak eta beste bost beherakoak).
- **18:30 Dantzaldia.** Mugi Panderoa taldearekin.
- **23:30 Kontzertuak.** Txosnen eskutik.

## Autobus zerbitzua

- **Hilaren 7an.**  
Eibar-Arrate: 17:00/21:30, ordu erdiro  
Arrate-Eibar: 17:30/22:00, ordu erdiro
- **7tik 8rako goizaldean.**  
Eibar-Arrate: 01:00/08:00, ordu erdiro  
Arrate-Eibar: 01:30/08:30, ordu erdiro
- **Hilaren 8an.**  
Eibartik Arratera: 08:30etik 22:30era, 12 autobus gora eta behera, bete ahala
- **8tik 9rako goizaldean.**  
Arratetik Eibarrera: orduro

## DOMEKA 11

- **10:30 Simon Aldazabal XXVII.**  
**Antxitxiketaldia.** Eibarko Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeako bidetik).
- **11:00 Meza Nagusia bertsolariekin.**  
Ondoren **prozesioa**, Usartza Txistulari Bandak lagunduta.
- **12:00 Paella Lehiaketa.**
- **17:30 Idi-probak.**


**Link Idiomas**  
 MEMBER OF CAMBRIDGE ESOL CENTRE ES438  
**-INGELES-** KLASEAK GOIZ ETARRATSALDEZ  
 UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT  
 TALDE MUGATUAK  
 BAKOITZARI EGOKITUA  
 ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA  
 CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA  
 MAILA GUZTIAK  
 Cambridge English Language Assessment  
 Exam Preparation Centre

[www.linkidiomas.com](http://www.linkidiomas.com)  
 Juan Gisasola, 5  
 943 20 39 59



MATRIKULA **Adolfo**  
 ZABALIK **JAINAGA**  
 Urki, 25 - 1. ezk.  
 943 20 62 66  
 676 72 95 51

**Trikitixa eta Pandero Eskola**



  
**English School**  
 Lorea Hernández Arizaga  
 Ingeles Filologia Lizenziatua

Urtzaila, 8 behea  
 20600 EIBAR  
 605 716 717

**FUNEUSKADI**  
 Grand Avenue  
**FUNERARIA MUGICA**  
 Funeuskadi

TANATORIO EIBAR  
 TANATORIO CREMATORIO EGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27  
 Elgoibar: Xabilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)  
 Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20  
 Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar - Elgoibar - Ermaa - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Santao Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

**PELLUQUERÍA BLENDA**  
 943 206331  
 Udizka, 1




  
**EUSKO LABEL**

Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
 Carnicería autorizada

Bidebarrieta, 20  
 Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar  
**ETXERA ERAMATEN DIZUGU**  
 943 20 16 69  
 @Oberenaharategia



  
**ZURICH**  
**Lejardi S.L.** Aseguru Agentzia  
 Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

# “Musika zerbait pertsonala eta kolektiboa da aldi berean”

AINHOA PLAGARO BERMUDEZ • Alarma Morea



Alarma Morea taldeak Arrate Egunaren bezperan runba doinu alaietz piztuko du Arrateko zelaia. Nerea Dual Jimenezek eta Uxue eta Ainhoa Plagaro Bermudez ahizpek osatutako hirukoteak kontzertu bikaina eskaini zuen Sanjuanetako txosnagunean eta berriz izango dugu euren musikaz gozatzeko aukera.

**O**ndo pasatzeko eta musikaz gozatzeko aukera emateaz gain, feminismoa aldarrikatzen du bere letretan Alarma Moreak, besteak beste. Izan ere, ondo pasatzea eta musikaren bitartez hausnartzea eskutik joan daitezke.

**Sanjuanetan hemen egon zineten eta, orain, Arrateko jaietan. Gustora jotzen duzue Eibarren? Nola-ko plaza da?**

Sanjuanetakoa Eibar zapaltzen genuen lehen aldian guretzat (oholtzan behintzat) eta oso eroso sentitu ginen. Giro herrikoia eta gertukoa nabaritzen zen. Bueltatzea seinale ona izaten da normalean, beraz, oso eskertuta gaude bigarren ekitaldi honekin. Gainera, pozez zorutzen gaitu KeTeKalles bezalako taldeekin oholtza partekatu ahal izatea, guretzako horrelako taldeak erreferenteak izaten direlako eta emakumezkoen iraultzari keinu egiten diotelako... edo keinu baino gehiago agian!

**Zuen musikak guztiz bat egiten du jai-giroarekin. Nola bizi duzue musika? Zer saiatzzen zarete transmititzen zuen erritmoekin?**

Musika zerbait pertsonala eta kolektiboa da aldi berean. Garrantzitsua da oholtzan gauden horiek "neurri berdinean bibratzea", gure artean konektatzea eta ulertzea. Argi izan behar du taldeak zer transmititu nahi duen eta, hortik abiatuta, nola egin nahi duen.

Guk runba aukeratzen dugu, honek mugitzen gaituelako. Honek baditu nahiko erritmo eta melodia dantzakorrak eta dibertigarriak, eta, orokorrean guztiok ezagutzen dugun arren, Euskal Herrian ez dugu parrandetako jai-giroan oso presente.

**Eta letren bitartez?**

Letrek taldearen begiradaz hitz egiten dute, nahiko era positibo eta "sinplean", nire ustez. Gure helburua jendeak mezua ulertzea, mezuarekin geratzea eta gure sentimenduak plazaratzea da. Gaur egun gure hiru kanta daude entzungai plataformetan. Lehenengoak izenburuarekin dena esaten du: "Ez beti da Ez"; bigarrenak, gizartea eta norberaren juizioaz hitz egiten du: "Azala"; eta hirugarrenak, "Udaberrian" abestiak, lokaztutako bidean agertzen diren lore txikiak garrantziaz hitz egiten du. Guztiok bizitzen ditugu egoera "lokaztuak" eta horietatik igarotzen gabiltzanean iragana oroitzuz bizi gara, seinaleak eta irtenbideak bilatu nahian. Gehienetan irtenbideak gurekin ditugu, eta falta dena arnastea eta ingurura begiratzea izaten da. Hauek entzutea animatzen zaituztet!

**Euskal-runba egiten duzue, besteak beste. Nola-ko ezaugarriak ditu?**

Ez dago runba bakarrik. Runba, berez, Kuban sortu zela esaten da baina gure runba estiloa geroago runba flamenkoa bezala ezagutzen dena da. Hau Kubako



runba eta flamenkoa fusionatzen direnean ematen da, eta berriz andaluziar eta kataluniar ijitoek sortutakoa da. Orduan, euskal runba flamenkoa zer da? Aurretik aipatutako bien fusioa, euskarak duen erresistentzia eta nortasun kulturalarekin.

**"Alarma Morea entzuten da kaleetan barna...", diozue abesti batean. Nola daramazue orain arte egindako bidea?**

Egiten ari garen bidea gozatzen ari gara eta hori oso garrantzitsua iruditzen zait. Inoiz baino kontzertu gehiago eman ditugu aurten (22 urtea hasi zenetik). Guretzat plazerra da Euskal Herriko txoko ugari bisitaztea eta bertako jendea gertutik ezagutztea. Izan ere, herri bakoitza mundu bat da eta bertako jendea ze esanik ez (barreak). Irailean beste zazpi data ditugu zehaztuta eta datozen hilbeteetarako ere badiugu proposamenak.

**Beno, eta Arrateko Jaietarako prestatzeko, nolako ikuskizuna espero dezakegu?**

Uda ixten joateko kontzertu aparta, seguru! Kanta propioak izango dira, noski, bertsioak ere, abesti dan-



tzagarriak, kantagarriak... Gainera, aurretik aipatu dugun bezala, talde zoragarriez inguratuta gaude; beraz, zalantzarik ez giro zoragarria egongo dela.



**Jaixak Herrixak Herrixandako** Eibar-ko Jai Batzordeak bi eguneko egitaraua prestatu du Arrateko Jaietarako, hilaren 7rako eta 8rako, bi urteren ostean Arrateko Jaiak ondo ospatzeko. Irailaren 7an, Arrate Egunaren bezperan, 18:00etan Arratera Igoera egingo da eta, ondoren, 19:00etan txosnak zabalduko dira eta txupinazoa egingo da; gero karropoteoa, psikokiller jolasa, herri afaria eta kontzertuak (KeTe Kalles, Alarma Morea eta Maruxak Travesti DJ Show).

Hurrengo egunean, Arrate Egunean, gauean hasiko da festa kontzertu bikoitzarekin (Alargun Beltzak eta La

Fulana) eta, festa egin eta 04:00etan jolastu ondoren, 07:00etan desmuntatzearekin emango zaie amaiera jaiei. Jai Batzordeak azpimarratzen du egitaraua ez dela magia sortzen, herri-lana dela. Beraz, jendearen laguntza ezinbestekoa da egitaraua aurrera eramateko eta behar den neurrian gauzak egiteko (besteak beste, txosnagunea muntatzeko, luntxa prestatzeko, desmuntatzeko...).

Horrez gain, Arrateko Jaietan eraso matxisten aurrean nola jokatu jakiteko zenbait irizpide eman dituzte Instagrameko kontuaren bitartez (@jaixakherrixak).

# Armagineen lurretan tiratzaile finak

BIDEOA



Arrateko Tiro Pitxoiak 70 urte inguru daramatza bertan. Paraje ezin hobean dago kokatuta eta mundu osoko tiratzaileak jaso ditu urte hauetan zehar. Elkarteak gora beherak izan ditu bere ibilbidean, baina gaur egun momentu bikaina bizi du, martxa betean eta, gainera, bikain funtzionatzen duen taberna eta jatetxearekin.

**E**ibarko Tiro a Vuelo Elkarte (lehen Tiro Pichon) 1951. urtean sortu zen kirol-armen fabrikatzaileen eta herriko ehiztarien bultzadaz. “Filosofia egokia zuten nire ustez”, dio Miguel Tudanca elkarteko kideak, “edonori ematen zitzaiolako bertan parte hartzeko aukera”. Arma fabrikatzaile handiek zituzten elkartearen akzio gehienak, baina bazeuden parte-hartzaile partikularrak ere.

Sasoi hartan uso-tiroa zen ekin-tza nagusia eta gaur egun dauden zelaien alboan tiro-eremu bat eraiki zuten. Sektorearekin lotuta zihoan aktibitatea sortu zen eta “oso ondo funtzionatu zuen 1975 urte ingururara arte; Donostia, Bilbo, Iruñea eta Eibar artean zirkuitu moduko bat baitzegoen”, Tudancaren berbetan.

## Lana pasioz

70. hamarkadaren amaieran eta 80.aren hasieran sektorea krisian zegoen eta beherakada egon zen tiraldietan. Orduan, 1985ean alda-



keta handia egon zen elkartearen kirol-arloan. “Gaur egun gabiltzanok sartu ginen eta indar handia eman genion elkarteari, pixka bat berpiztuz”, diosku Tudancak. Gainera, Euskal Herrian zenbait tiro-eremu itxi ziren eta, Arratekoak jarraitu zuenez, kirolak indarra hartu zuen herrian. “Demaseko lagun-taldea sortu zen elkartean eta gaur egun espiritu horrekin jarraitzen dugu”, azpimarratzen digu.

Sasoi horretan sartu zen taldean tiroan aditua den jendea zegoen, kudeatzaile bikainak, ekonomian adituak, teknikaren aldetik asko zekitenak, ingurugiroan adituak (“sortzen ditugun hondakinak jaso egiten ditugu, zorrotzak gara horretan”), etabar. Hau da, arlo ezberdin askotatik ekarpenak egin zitzaizketen pertsonak. Den-denak pasio batek batuta: tiroa. “Ez dugu kobratzen lan hau egiteagatik, afizio hutsagatik egiten dugu”, diosku Tudancak.

Elkartean sortu zen giro on horrek onura ugari ekarri zituen. “Ez taldearentzat bakarrik, baita herri mailan ere”, azaldu digute. Orduan, 1990ean fabrikatzaileen erakusketa handia egon zen Eibarren eta, horren harira, bi tiro-eremu egitea proposatu zioten elkarteari.

Elkarteari demaseko aktibitatea zuen eta tiro-eremua txiki geratu zitzaien. Orduan, Udalaren eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntza jaso zuen tiro-eremu bien proiektua aurrera eramateko. “Baina arazo bat zegoen: Aldundiak ezin zion pribatua zen jarduera bati laguntzarik eman”, diosku Tudancak. “Gaiari mila buelta eman genizkion eta elkartearen jabeen esan genien gu-



Jaurtizeko sistemak guztiz automatizatuta daude EKHI BELAR

## >>> Tiro a Vuelo elkarteko kideek inbertsio handiak egin dituzte eta punta-puntako instalazioak daude Arraten

txienez 10 urteko lagapena egiteko. Eurak ziren lurren jabeak, guk jardueraren kudeaketa egiten genuen bakarrik. Jabeek onartu egin zuten, bi tiro-eremu egin ziren, gunea berri zuten eta tiroaren jarduera asko hazi zen 2000. urtera bitartean”, esan digu Tudancak.

### Elkarteari bultzada

Elkartea asko hazi zen eta, orduan, elkartearen akzioetan nagusiek, lurren jabeak zirenek, gauzak hain ondo zihoazela ikusita, onura atera



Antzina erabiltzen zituzten sistemak gordetzen dituzte oraindik Tiro Pitxoian. EKHI BELAR

nahi izan zuten, “baina 2000. urtera arte kudeaketa gure esku lagata zuten eta ezin zuten ezer egin”, Tudancak errepikatu digunez. Orduan, 2000. urtea iritsi zen. “Jarduera bikain joateaz gain, higiezinaren arloa gorakadan zegoen eta guzti hau saldu egin nahi izan zuten”, diosku. “Kudeaketan genbiltzanok jarraitu egin nahi genuen, baina ezin genion salmentaren prezioari aurre egin. Hainbat bilera egin genituen, blokeatu egin gintuzten eta prozesuak luze jarraitu zuen. Taberna itxi egin behar genuen! Azkenean, kontraeskaintza bat egin genuen eta akordio batera iritsi ginen sasoi hartako auzo-alkatearen laguntzarekin (Mandi)”, kontatu digu Tudancak.

### Martxa betean

Kudeatzaileek elkartearen gidaritzara osoa hartu ondoren, inbertsio handiak egin zituzten jarduerak hobetzeko. “Gukez dugu honekin dirurik irabazi izan nahi. Are gehiago, dirua jartzen dugu eta doan egiten ditugu

## >>> Abuztuan bi txapelketa jokatu dira Tiro Pitxoian eta 400 parte-hartzaile inguru bildu dira bertan

lanak elkartearantz”, diosku Juanma Llona elkarteko kideak. Esan bezala, ez da negozioa, pasioa da.

Elkarteko kideek egindako ekarpenei esker hobekuntza handiak egin dira tiro-eremuan, jatetxean eta abar, eta esan daiteke puntapuntako instalazioak ditugula Eibarren. Adibidez, guztiz mekanizatutako tresnak daude tiradak egiteko eta, horrela, erabiltzaileak edozein momentutan joan daitezke bertara. Zentzu horretan, elkarteko kide biek argi dute taldearen filosofia:



“elkartera guztiz irekia da, atea zabalik ditugu”.

Gaur egun, gehien praktikatzen dena plater-tiroa da, gero helize-tiroa eta, azkenik, uso-tiroa. Gainera, Eibarren zenbait arma-ekoizle daudenez, jendea tiro-eremura joaten da armak probatzera.

Elkartera 200 bazkide inguru ditu eta egunero ikusi daiteke jendea bertan. “Eta taldekoa izan barik ere, baldintza guztiak betez gero, edonor etorri daiteke tiratzera”, esan digute kideek. Bestetik, hilerotira egiten saiatzen dira eta hainbat txapelketa antolatzen dituzte urtean zehar. Abuztuan, adibidez, Espainiako Kopa eta Espainiako Txapelketa jaso ditu Tiro Pitxoiak, eta 400 lagun inguru etorri dira lehiatzera (Espainia, Italia, Portugal, Mexiko, Frantzia... toki ezberdinetako jendea etorri ohi da). “Kopuru horri familiak eta lagunak gehitzen badizkiogu, demaseko jendetza da eta, ondorioz, pizgarri garrantzitsua herriko ekonomiarentzat”, diote biek.



## Arrate bezperako bertso-afarirako sarrera gutxi batzuk geratzen dira

Lehen ere izan du berritasunik Arrate bezperako bertso-jaialdiak, baina oraingoan ere ez da atzean geratuko. Jakina, aurreko bi urteetakoaren bidetik joatea ere ez zitzaigun komeni, batez ere ikusita 2020an ezin izan genuela ezer ere prestatu. Iazkoa desberdina izan zen behintzat, bertso-saioarentzat tartea izan genuelako Arrateko elizan; hori bai, hasi zenetik mende laurdena ondo pasata elkarrekin izaten duen afariarentzako ez zen tarterik izan.

**A**urten bai, hor izango dugu bertso-afaria bueltan, ohikoarekin, Arrate bezperan eta gaueko 21:00etan hasita. Oraingoan, baina, aurreko urteetako Kantabriatik metro batzuetara izango du kokagune, Tiro Pitxon jatetxean. Aforoa ere txikiagoa du eszenategi berriak eta, horregatik, kontuz ibili bertan izateko asmoa duzuenok, sarrerak ere azkenekoetan daudelako. Antolatzailerik diotenez, “hilaren 6ra arte, martitzen eguerdira arte, eskuratu daitezke Guridi eta Kultu tabernetan; behin hortik jasota, Tiro Pitxon-en bertan lortu ahal izango dira, izatekotan”. Afariko menua frijituak, entsalada eta entrekotak osatuko dute eta sarrerak 38 eurotan erosi daitezke.

Aurreko edizio guztietan Kantabria jatetxeak hartu izan ditu ...eta

kitto! Euskara Elkartek antolatutako Arrate bezperako bertso-afari guztiak, lehenengoz egin zen 1993tik aurrera. Orduko hartan Egaña, Lizaso eta Peñagarikano izan ziren Juan Mari Narbaiza eibartarrarekin batera. Hurrengo urteetan, hamar edizioetan jarraian, parte hartu zuen Gregorio Larrañaga “Mañukorta” ere gogoratuko dugu lerro hauetan, inguruko bertsozaleen artean zaletu asko zituenak uztailearen 25ean laga gintuen eta. Aurtengo bertsolarien kartela ere ez da nolana hikoia, une honetako lehen mailako lau bertsolari izango baitugu eguazteneko bertso-afarian: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Sustrai Colina, guztiak ere Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen “agindueta-ra”. Lekua aldatzeaz gain, aurtun ez da gure artean izango hainbeste

ediziotan, kalerik egin gabe, bertso-afarian izan den Egaña-Lizaso tandem. Bertso Taldeko antolatzailerik diotenez, “saioari berari beste buelta bat eman nahi izan diogulako. Ez da erabaki erraza izan, inguruko bertsozaleok asko maite ditugulako bai Sebastian eta baita Andoni ere. Horregatik, erabaki honek ez du esan nahi beste batean etorriko ez direnik”.

Ekitaldiko arlo teknikoaz, bestalde, oraingoan Joseba Barrutia “Arno” arduratuko da. “Hor ere aldatuta izan denez, eskerrak eman nahi dizkiogu orain arte soinu eta mikrofonoen ardura izan duen Angel Lopezi urte hauetan guztietan egindako lanarengatik”, antolatzailerik esanetan. Eskertza hori ez da hor geratzen eta “esker oneko hitzak besterik” ez dituzte Kantabriako Maite eta Loreari buruz.

# Eibar Futbolk Taldeak indartsu hasi du denboraldia

Aurreko denboraldiaren amaierako ezuste tristea atzean lagata, Gaizka Garitanoren taldeak gogo biziz ekin dio denboraldi berriari. Bai aurrendenboraldiko partiduetan eta baita Liga hasierakoan ere, taldeak sasoiko dagola erakutsi du eta orain arte partidurik galdu gabe jarraitzen du. Denboraldi honetan, gainera, babesle berria izango du taldeak: Eibho izango da patrozinatzaile nagusia.



Aurrendenboraldiko partiduetan nagusitu egin zen Calahorraren (0-2, Javi Muñoz eta Corpasen golekina), Lezaman Bilbao Athletic-en (0-1, Tronchoren golarekin), Amorebietaren (5-2, Bautista eta Aketxeren bina golekina eta Rahmaniren batekin), Huescaren (1-3, Corpas, Vadillo eta Stoichkov-en golekina), UD Logroñesen (1-2, Bautista eta Rahmaniren golekina) eta Zubietan Realaren aurrean (1-2, Arbillan eta Bautistaren golekina). Irabazi ez zuen bakarrean, Garitanoren taldeak husna berdindu zuen Oviedoren Carlos Tartiere zelaian.

Behin Liga hasita, Ipuruan jokatutako lehenengo partiduan



Eibho izango da patrozinatzaile nagusia.

Venancio eta Stoichkov-en golek buelta eman zioten aurretik Tenerife sartutako golari. Bigarrenean, Villarreal B-ren zelaian jokatutako neurketan, eibartarrek bina berdindu zuten, Quique eta Blanco Leschuk-en golekina. Eta hirugarrenean, berriro etxean jokatutakoan, Blanco Leschuk-ek sartutako golak erabaki zuen Ponferradina- ren aurkako norgehiagoka. Emaitza horiekin Eibar FT bigarren da sailkapenean, Granada liderraren atzetik bi puntura. Ale hau inprentara bidali behar genuenean Ligako laugarren partidua Leganesen jokatzeak ziren eibartarrak (zuen eskuetan jasotzen duzueneko jokatuta egongo da).

Taldean eman diren aldaketei begira, Ponferradinatik etorritako Rios Reina ezker alboko atzelariaren ondoren, Juan Berrocal atzelaria etorri zen Sevillatik, Matheus Pereira erdilaria Bartzelonaren bigarren taldetik eta Bautista aurrelaria Realetik. Lagata heldu dira baita Imanol Garcia de Albeniz ezker hegaleko atzelaria eta Kepa Nolascoain atzelari eta erdilaria ere, biak Athletic-etik, eta Vadillo aurrelaria Espanyotetik. Eta taldera bueltatu

dira, orain fitxatuta, Chema Rodriguez atzelaria eta Blanco-Leschuk aurrelaria, azken hau gainera inoiz baino indartsuago. Luka Zidane atezaina izan da azken fitxaketa.

Azkenik, lagata joan dira Franchu (Cartagenara), Cubero (Fuenlabrada) eta Jorge Yriarte Venezuelarra (Amorebietara). Glauder atzelariak, bestalde, kontratua eten du.

## Eibar FT-ko jokalariei-ohiak

### 1. eta 2. Mailan

1. Mailan: Almeria (Pozo), Athletic (Yuri Berchiche, Capa, Dani Garcia), Cadiz (Ivan Alejo), Elche (Bigas, Pere Milla), Espanyol (Edu Exposito), Girona (Aleix Garcia), Mallorca (Angel, Lago Junior), Osasuna (Ruben Peña, Kike Garcia), Rayo Vallecano (Lejeune, Bebe), Sevilla (Dimitrovic, Jordán) eta Villarreal (Morales).

2. Mailan: Burgos (Atienza, Saul Berjon), Cartagena (De Blasis, Franchu), Ibiza (Galvez, Pape Diop), Las Palmas (Raul Navas, Marc Cardona), Leganes (Riesgo), Lugo (Calavera), Malaga (Esteban Burgos, Fran Sol), Oviedo (Borja Baston, Sergi Enrich) eta Sporting (Cuellar, Cote eta Christian Rivera).

## Simon Aldazabal herri-igoeraren 27. edizioa jokatu da datorren domeka goizean

Simon Aldazabal lasterketaren 27. edizioa jokatu da datorren domekan, hilaren 11n, goizeko 10:30ean Toribio Etxebarria kaletik irten (Deporren parean) eta Arrateko zelaian helmugaratzeko. Urtero lez, Orbeo bidetik igo beharko dute parte-hartzaileek, bost kilometro eta erdiko ibilbidea egiteko, tartean %20ko portzentaia aldapak igo eta gero. Izen-ematea doanekoa izango da eta egun berean egin ahal izango da, 09:00etatik aurrera. Amaieran sari-banaketa egingo da eta partaide guztientzako hamaiketako ere presatuko dute, Betikuak elkartearen eskutik. Eta, urterokoari jarraituz,



Urkeziko iturriaren paretik lehen postuan pasatzen denarentzat sari berezia gordeko dute, "beti ere helmugara heltzen bada".

## Igeriketa

Eibar Igerixanek Flysch Beltza Zeharkaldiaren 8. edizioa egingo du hilaren 17an. 11:00etan Saturrarantetik irtenda, 6.500 metro egiteko, eta 12:00etan Mutrikutik irtenda, 3.000 metro egiteko, bietan ere Deban amaitzeko. Aurretik, hilaren 13an Igeriketako Irakaslearen Eguna egingo dute eta, ondoren, 19an Emakume Ekintzailearena.

## Pilota

Klub Deportiboko pilota batzordekoek hurrengo ikasturtean Pilota Eskolan parte hartzeko aukera zabaldu dute; horretarako, eskaera bidali daiteke [pilotaeskola@depor-eibar.com](mailto:pilotaeskola@depor-eibar.com) helbidera. Entrenamenduak martitzenetan eta egue-netan egingo dituzte, 17:00etatik 19:00etara, adinaren arabera sailkatuko dituzten multzoetan

## Gimnasia erritmikoa

Aurreko astelehenean hasi zuen ikasturtea Ipurua Gimnasia Erritmikoko Klubak, gimnasta federatuekin, eta hilaren 12an, hurrengo astelehenean, hasiko dira eskola mailakoekin. Klubean izena emateko aukera dago irailaren 30era arte. Informazio gehiagorako interesatuek [gimnasiaipurua@hotmail.com](mailto:gimnasiaipurua@hotmail.com) helbidera jo dezakete.

## Xakea

Eibarko Klub Deportiboko Xake Eskolan izena emateko epea irailaren 9ra arte dago zabalik. Klaseak bari-xakuetan emango dira, bi txandatan banatuta: 18:00etatik 19:00etara eta 19:00etatik 20:00etara. Klaseetan gehienez 10 ikasle hartuko dira. Izena [www.depor-eibar.com/xakea](http://www.depor-eibar.com/xakea) helbidean eman daiteke.



## Pello Osorok Fromistako Triatloiaren lehenengo edizioa irabazi du

Eibarko triatletak podiumaren gorenean izan zen distantzia erdiko triatloi horretako lehenengo edizioan. Palentziako herri horretan jokaturako proban bero handia izan zen protagonista. Lehenengo saioan Emilio Aguayo izan zen onena, Mikel Ugarte eta Hugo Mario Ruiz kolonbiarra gertu zituela. Osorok bi minututik gora galtzen zuen ure-

tatik irtetzerakoan, baina bizikleta gaineko proban Ugartek eta eibartarrak aurrea hartu zioten Aguyori eta, bizikletatik jaisterakoan, bost minutu kentzen zioten lehen zatiko irabazleari. Antxintxiketan egindako azken zatian, Osorok ia lau minutuko aldearekin nagusitu zitzaion Roger Manyari, Ugartek hirugarren postuan amaitzeko.

## Aurpegi berri asko Eibar FT-ko emakumezkoen lehen taldean

Mailaz jaistearekin batera, aurpegi berri asko izango ditu Eibar FT-k 2. Mailan jokatu duen hurrengo denboraldian. Entrenatzailearekin hasi dira aldaketok eta Yeray Martin izango da taldearen ardurar hartuko duena, Antiguoko-ko maila goreneko lau taldeak bere eskuetan izan eta gero. Jokalariei dagokienez, taldera etorri dira Maria Miralles atezaina (Castellonen azken denboraldian partidu eta minutu guztiak jokatuta), Racing-etik Carla Andres atzelaria, Gema Gines eskuineko atzelaria eta Laura Camino aurrelari kantabriarra, Deportivotik Andrea Sierra eskumako hegaleko bilbotarra eta Jone Ibañez erdilari bizkaitarra, Xixon-go Sporting-etik Geraldine Saavedra atzelari kolonbiarra, Zaragoza CFF-tik Andrea Alvarez aurrelari



guatemaldarra, London City Lionesses-etik Bermudasen jaiotako Kenni Thompson ezker aurrelaria eta Santa Teresatik Esperanza Pizarro aurrelari uruguaiarra. Azken talde horretatik itzuliko da gurera Jujuba erdiko atzelaria eta, horrez gain, Marta Lopez de Gereñu eta Irati Martin lehen taldera igoko

dira. Bigarren talderako fitxatu dute baita Valentina Morales ezker atzealdean jokatzeko duen uruguaiarra ere. Baja garrantzitsua ere izango du taldeak, Racheal Kundananji azken denboraldian gehien nabarmendu zen jokalariren etete-klausula ordaindu duelako Madrid CFF taldeak.

## Deporreko mendizaleak ikasturte berriaren aurrean

Klub Deportiboko mendi taldeak Santiago zubia aprobetxatuz Pirinioetara egindako txangoan “3000ibones” zeharkaldia burutu zuen, ia 3.000 metro altuerako hainbat mendi igotzeko: zapatuan 2.824 metroko Arriel eta 2.640ko Petit

Arriel egin zuten, domekan 2.974 metroko Palas eta, amaitzeko, astelehenean Col de Lie, Le Lurien eta Fabreges. “Eguraldi zoragarria izan genuen, batzuetan haizetsu aurkitu bagenuen ere” dio bertan izan zen hamabost laguneko taldeak. Une

eder horiek hilabete honetatik aurrera izango dute jarraipena Deporrekoen ikasturte berrirako irteerekin. Honakoak dira irailerako irteerak: 9tik 11ra Picos de Europa, Torre Santa (2.596 metro) eta Espigüera (2.451) igotzeko; 17an Orduñatik Barriga de Losaraino, Solaietatik (1.038 metro) pasatuta; eta 24an Arantzazutik Brinkolara, Urbia eta Enaitzetik (1.296) pasatuta.

Bestalde, mendi batzordeko Krabelin taldekoek urtero egiten duten astebeteko irteera egin zuten Pirinioetara, oraingoan Bielsan ostatu hartuta. Taldeko 11 mendizalek hainbat mendi igo zuten tarte horretan: Campbell (3.173 metro), Pic de Madamete (2.644), Pico Robiñera (3.003), Comodoto (2.356) eta Balcon de Pineta (2.520) tartean.



Azken ikasturteko amaieran Deporrekoek egindako azken irteera Pirinioetara.



## Arrate Eibar Eskubaloiko lehen taldeko neskek zilarrezko mailan debutatuko dute irailaren 17an Ipuruan

Andoni Perez entrenatzailearen aginduetara jardungo duen taldeak, iaz bezala, erronka berri bati ekingo dio aurtengoan ere. Zilarrezko mailan egingo duten debutean ez dute lan errazik izango, multzoan izango duten aurkarien kontrara fitxaketarik ere ez dutelako egin armaginek. Bigarren urtez jarraian liga berri batera moldatu behar duen taldearen helburua “mailari eustea izango da”, Perezen esanetan. Berarekin batera, Irune de Castro, Maialen Insausti, Ane Montiel, Amaia Oyarzabal, Malen Aja, Maitane Velasco, Nahia Benitez eta Itsaso de Diego jokalariek kontratua berriztu dute; horiez gain, Lucia Gutierrez, Naia de Castro eta Leire eta Ane Treviñok bigarren taldetik igo dira. Gainera, Nagore Ruiz, Naia Basterra eta Elena Iriartek, bigarren taldearekin jokatu badute ere, lehenarekin aritzeko fitxa izango dute.



Zilarrezko mailako B multzoan jardungo dute eibartarrek, Aiala Zarautz, Helvetia Anaitasuna eta Gurpea Beti-Onak talde indartsuekin batera. Talde ezagunagoak ere izango dituzte aurrean, iaz euren aurretik txapela jantzi zuen Omega Peripherals Basauri kasu, eta, nola ez, gure auzoko Lauko Ermuko Errotabarri eta Gaurve Asesores Elgoibar, bi horiek urteak daramatzatenak maila horretan: “Eskualdekoen arteko lehiakortasun handi-

ko neurketak izango dira”. Loizaga construcciones Castro Urdiales, Schar colores Zaragoza, BM Loyola, Lagunak, NAIBC San Adrian eta Imdeam La Jota izango dira multzoko beste taldeak. Aurreneko biek igoera fasea jokatu dute eta azkeneko biek maila galduko. Zaragozako Imdeam La Jotarekin hasiko du denboraldia Arrate Eskubaloiak irailaren 17an, zapatua, Ipuruan 18:30ean hasiko den norgehiagokan.

## Eibar Rugby Taldeak nazioarteko hiru fitxaketa egin berri ditu

Ohorezko Mailan hirugarren denboraldia egingo duen gure herriko taldeak Herbeheretako jokalaria bat eta Argentinako beste bi fitxatu ditu, “beti ere, lehiaketak eskatzen duen mailan egoteko eta, gainera, tokiko mailan nazioarteko errugbia ikasteko asmoz”. La Plata Rugby Club-etik datozen Maria Lujan Taladrid eta Paula Agustina Ghiorzi Argentinako selekzioarekin jokatu dute eta eta Marit Lemmens mediomeleak ere Holandako selekzioan jokatzeko du. Cristina Guntinek entrenatzaile postuan jarraituko du eta Raquel Fraguas izango da prestatzaile fisikoa, biak ere “denboraldi gogorri aurrera



egin eta goiko postuetan jarraitzeko itxaropenarekin”. Ligako lehen partidua urriko lehenengo asteburuan izango dute. Bitartean, Aleu Cid jokalaria Espainiako selekzioaren azken kontzentrazioan izan da

Hegoafrikan abuztuko lehen astean. Hortik aparte, Eibar Rugbyren udalekuetan ehun umek baino gehiagok hartu zuten parte. Eta orain, oporrak amaituta, maila guztietako taldeek entrenamenduei ekin diete dagoeneko. Aipatzekoa da baita irailaren 10ean Soroluzeko Ezoziko zelaian egingo den errugbi jokalaria beteranoren topaketa ere, Sora Rugby Taldearen eskutik. Goizeko 11:00etan hasiko den partiduan, Eibarko eta Iruñeko jokalariek osatuko dute talde bat (Sai zaharrak, Putre zaharrak) eta Soroluzeko, Madrilgo eta Kataluniakoek bestea (Sora Barbarians).

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

			8			
		8	6			
6		9	2			5 7
8	1				2	9
			7	9		
9		2				4 3
5	3			1	4	6
				4	5	
			6			

R	E	C	E	P	E	L
L	O	S	A	C	I	O
Q	U	E	L	A	R	I
S	T	R	A	C	I	O
A	C	I	O	S	A	C
C	I	O	S	A	C	I
C	I	O	S	A	C	I
C	I	O	S	A	C	I
C	I	O	S	A	C	I
C	I	O	S	A	C	I

soluzioa

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

3		4	6	8	
	1	2			6
5	7		8		
		5			1
9	5			6	2
1		9			
		7		3	2
7		4	1		
5	8	3			7

**S  
U  
D  
O  
K  
U**


soluzioa

C	R	E	B	E	T	L
R	E	L	L	O	R	E
F	I	C	I	O	S	A
C	I	O	S	A	C	I
C	I	O	S	A	C	I
C	I	O	S	A	C	I
C	I	O	S	A	C	I
C	I	O	S	A	C	I
C	I	O	S	A	C	I
C	I	O	S	A	C	I



**AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK**






L  
A  
B  
I  
R  
I  
N  
T  
O  
A

AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



L  
A  
B  
I  
R  
I  
N  
T  
O  
A



## Enrique Alcelay Aizpiri

1. URTEURRENA  
2021/08/31

"Gure bihotzetan  
zaude betirako.  
Maitte zaittugu"

- ETXEKOAK -



## Jose Luis Larrañaga Azpiazu

1. URTEURRENA  
2021/09/02

"Zure maitasun eta  
irribarrearekin  
gelditu gara.  
Beti gogoan  
izango zaitugu"

- ETXEKOAK -



## Begoña Aranguren Odriozola

2. URTEURRENA  
2020/08/29


"Egunero somatzen  
dogu zure hutsunia.  
Maitte zaittugu"

- ZURE FAMILIA -



## Arrate Lizarriturri Gorostegi

2. URTEURRENA  
2020/08/29

  
"Utzi gintuzunetik  
bi urte pasa dira jada,  
baina gure bihotzetan  
jarraitzen duzu beti"

- ETXEKOAK -



## Manu Fernandez Goikoetxea

8. URTEURRENA  
2014/08/04

"Ez egin negarrik  
amaitu delako;  
irribarre egin  
bizi izan dugulako"

- ZURE KUADRILA -



## Gregorio "Goio" Alberdi Osoro

5. URTEURRENA  
2017-08-31

"Betiko gure  
bihotzetan"

- SENITARTEKOAK -




688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **UNAI** Milikua Berrizbeitia, abuztuaren 25ian 2 urte bete zenduaz-eta. Etxeko guztien eta, batez be, Jon eta Denelen partez.



Zorionak, **JUNE**, abuztuaren 26xan 10 urte bete zenduaz-eta!!! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Elenen partez.



Zorionak, **IXONE** Ortiz de Zarate, hillaen 7xan 10 urte beteko dozuz-eta. Asko maitte zaittuen famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **DANEL**, txikitxu, abuztuaren urtiak bete zenduaz-eta!! Zure anaixa Ander eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JULEN**, abuztuaren 31n 3 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, **UNAI!** Zoragarri pasau genduan zure egunian! Patxo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Iratiren partez.



Zorionak, **DANEL**, hillaen 30ian 9 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat ama, aitxitxa, amama, aittabitxi, izeba eta osabaren partez.



Zorionak, **ALAITZ**, abuztuaren 14an 10 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Gaizka eta Noaren partez.



Zorionak, **PABLO** Zubillaga Etxebarria, hillaen 9xan 2 urte beteko dozuz-eta!! Patxo haundi bat etxe-kuon eta, batez be, Luciarene partez!



Zorionak, **GARA**, gure etxeko sorigiñak abuztuaren 21ian 2 urte bete zittuan-eta. Jarraitu hain alai. Musu potoluak etxekuen partez.



Zorionak, **OSKITZ**, gaur 5 urtetxo beteko dozuz-eta. Aitxitxa-amamen, gurasuen eta Lauri izebaren partez.



Zorionak, **IKER**, hillaen 12xan 10 urte beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu! Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Koldoren partez.

**Joseba Zulueta Orbea**

2022/07/30

Hutsune galanta, benetan, bihotz haundi horrek guztioi laga deskuna.



**Bittor Ariznabarreta Eguren**

2022/08/21

"... ETA NIK TXORIA NUEN MAITE"

Eskerrrik asko, aitta, egun haundira arte.

MILA ESKER danori jasotako maittasun guztiagaittik.



# Iragarki laburrak



688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Errioxako Fuenmayor-en, Logroñotik 5 minutura. 3 logela. Egoera onean eta zentrikoa. 60.000 euro. 657779811..

### 1.2. Errentan

- Bikoteak etxebizitza hartuko luke alokairuan. Erreferentziak. 667060292.
- Zumaian etxebizitza alokatzen da hamabostaldika irailean. 2 logela ditu eta ondo kokatua dago. 616382416.

- Unibertsitatean ikasten diharduen bikoteak (lan finkoarekin) pisua hartuko luke alokairuan. 1 edo 2 logelakoa. Erreferentziak. 637918620..

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Lursail/terreno baten bila nabilerosteko Eibarren edo inguruan. 669141127. Ibon.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 654210024.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Orduka. 664109570.
- Gizonezkoa eskaintzen da lozain edo peoi bezala, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. 631868165.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 660542155.
- Irakaslea eskaintzen da akademiatan edo haurtzaindegietan lan egiteko. 688628235. Jone.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (pegorak...). 671677160.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 672421587.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko eta dendan lan egiteko. 680117171.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zain-

tzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 637222318.

- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Orduka. Erreferentziak. 664888779.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Orduka. Erreferentziak. 632419944.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako edo janaria egiteko. Esperientzia. 602872909.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) eta etxe-garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxe-garbiketarako egiteko. 624869718.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta supermerkatuan lan egiteko. 673831401 / 666843393.

### 4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculuma Eibarko 331 postakutxatilara.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com
- Pertsona euskalduna behar da irailetik aurrera goizetan umea haurreskolara eramateko. 699495279.
- Kiroletz teknikaria behar da. Beharrezkoa: euskera jakitea eta aquabike, aquafitness eta igeriketara ikastaroak emateko ikasketak izatea. 688610620. eibarigerixan@gmail.com

- Elgoibarko enpresa batek jendaurreko eta biltegiarako pertsona behar du. Ordenagailuko gutxieneko ezagutzak eta gidabaimena izatea baloratuko dira. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimikako eskola partikularrak ematen dizkiet LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestaketa-rako ikasleei. Gehienez lau lagun. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. Edozein arlo. 615708043.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- LHko klase partikularrak ematen dira. 640019325. Nerea.
- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitate prestaketa klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Eibar BHko DBH3. mailako liburuak salgai. 615712216.
- Yamaha PSR E223 pianoa salgai. 80 euro. 669208763.
- Batxilergo 1-eko liburuak erosiko nituzke. 688679682. Amaia.
- Camper furgonetari atxikitzen den geladun kanpin-denda salgai. 70 euro. 695708100.

## EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA

Niretzat



Hiretzat



Para todxs

# EUSKARA GUZTIONTZAT



Zuentzat



Guretzat

Zuretzat



MADE

2022-2023  
MATRIKULA  
EPEA ZABALIK

## Irailaren 1etik 30era MATRIKULA ZABALIK

2022-23 ikasturtea

### MAILA GUZTIETAKO euskara ikastaroak

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	
A1	A2	B1	B2	C1	C2
ONARRIZKO ERABILTZAILA		ERABILTZAILA AURRERATUA		ERABILTZAILA ADITUA	

- Autoikaskuntza: Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasaiolak
- Etorkeinenzako harrera-ikastaroak (AISA)
- Mintzamen tailerra
- Jubilatuentzako ikastaroak
- Azterketa prestakuntza
- HABEko titulu ofizialak

16 urtetik  
gorakoentzat  
ordutegi zabalak

TARIFA BEREZIAK: %20, %50 eta %75eko DESKONTUA  
KONTSULTATU



Bista Eder, 10 -PORTALEA-  
euskaltegia@eibar.eus  
Tfnoc: 943 70 09 12



## MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA IRAILAK 16-22

### IBILALDI OSASUNTUA IRAILAK 16, OSTIRALA

Paseoa oinez, hamaketako osasuntua eta ariketa terapeutikoen proposamena. Irteera: 10:00, Orbeako kiroldegian. Izena ematea: irailak 14

### BIGARREN ESKUKO BIZIKLETEN AZOKA ETA KONPONKETA TAILERRA

IRAILAK 17, LARUNBATA  
10:00-14:00, Untzaga Plazan.  
Izena ematea: 943 67 02 49 //  
www.merkabi.eus/eibar

Bideberde eta bidagoniei buruzko  
INFORMAZIO GUNEA,  
TAILERRAK ETA BIZIKLETA  
ELEKTRIKOEN TESTAKETA  
IRAILAK 17, LARUNBATA  
10:30-14:00 eta 15:30-19:30,  
Untzagan (Eskularak eta taller  
mekanikoa)

IRAILAK 18, IGANDEA  
10:30-14:00, Untzagan  
(Taller mekanikoa)

NORDIC WALKING BATAIOA  
Bi talde (goizez edo arratsaldez)  
IRAILAK 19 eta 21  
10:00-12:00, Itzioko parkean



IRAILAK 20 eta 22  
18:00-20:00, Itzioko parkean  
Izena ematea: irailak 14

HITZALDIA: Nola erabili  
bizikleta elektrikoa Eibarren,  
argitu zalantzak!  
IRAILAK 21, ASTEAZKENA  
18:00/19:30, Erreal plazan  
Euzkoaz / Izena ematea: irailak 19

AUTORIK GABEKO EGUNA  
IRAILAK 22, OSTEAGUNA  
(Udalbus dohaink)

NORDIC WALKING MARTXA  
IRAILAK 24, LARUNBATA  
Bilixan naturan ibilbidea.  
Irteera: 09:00, Untzaga Plazan.  
Izena ematea: irailak 21

Konbinatu  
eta mugitu!



Jardueretan  
izena ematea  
943 70 84 08



Azokan  
izena ematea  
943 67 02 49

Aldez aurretik izena  
ematea ezinbestekoa da



udalsarea 2030



Eibarren Kirol Taldeak

Palazioa - Buztegia - 48100 Eibar



EIBARKO  
IBILI  
TALDEA



DEGASARRENA  
TURRUDILLAR  
TALDEA

ibiliXan





EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA



Hizkuntza Eskola Ofizialak  
Escuelas Oficiales de Idiomas

# Eibarko Hizkuntza Eskola



DEUTSCH ENGLISH EUSKARA FRANÇAIS



**IKASTARO**

**ERDIPRESENTZIALAK**

hizkuntza guztietan

– eskolan eta on line (Moodle plataforma) –

Arrasaten eta Azkoitian

**GELA**

**DESPLAZATUAK**

ere badauzkagu



\*14 urtetik gora: *Frantsesa eta Alemana* (eskolan Ingelesa atzerriko lehen hizkuntza bada).  
16tik gora: Edozein hizkuntza.

**14 urtetik gora\***

Matrikula on-line egin beharko da ondorengo web orrian:

[www.eoieibarheo.hezkuntza.net](http://www.eoieibarheo.hezkuntza.net)

IKASGUNEA plataformaren bitartez

Ikasturte osoaren prezioa: **72,36 euro**

